

OIARTZUNGO ALBOKA ETA TXALAPARTA ESKOLAK MARTXAN

Bere sorreratik Herri Musikaren Txokoak dituen helburuetako bat, gure inguruan herri musika ezagutaraztea, zabaltzea eta indartzea da. Hori modu askotan landu behar da eta besteren artean herri musikan soinu jole edo emaile onak izateko baldintzak eskeiniz lortzen da, eta horrela sortu zen herri musika eskola antolatzeke egitasmoa. Bide hori aspaldidanik abiatua zen Oiartzun aldean, bai Txistu Eskolarekin eta Trikitixa Eskolekin ere. Horien osagarri, guk antolatutakoak, 1999. urtean hasi zen Txalaparta Eskola eta 2002. urtean Alboka Eskola.

Hasiera honetan, Txalaparta eta Alboka Eskola Oiartzungo Udalak babesten dituen helduentzako ekintza eta ikastaroetako egitarauen artean kokatzen dira. Bi kasuetan ikasturtearen iraupena 8 hilabetekoa da, urritik maiatza bitartean eta eskola-egutegia jarraituz.

Ikasturtez ikasturte ikasle asko pasa dira klase hauetatik, eta jadanik hori antzematen da, inguruko ekintza eta ospakizunetan ez baita falta izaten txalapartari oiartzuarren presentzia.

Txalaparta irakaslea, Hernaniko Txalaparta Eskolakoa,

Altzibarko Eskolatako lokaletan eman izan direlarik.

2003-2004 ikasturtean berriz, jarraian ikus daiteken moduan lau talde edo mailatan antolatutako hogeitamar ikasle ditu:

1. ikasturtean: 19
2. ikasturtean: 5
3. ikasturtean: 3
4. ikasturtean: 3

Aurten, Txalaparta klaseak Ergoingo Auzokalte elkarteko lokaletan ematen dira, astean 6 ordu, astelehen eta astearteetan banaturik.

Eskola honetako txalapartariak, esan bezala, inguruko ekintza askotan parte hartu dute dagoeneko, besteak beste:


1999.- Oiartzungo Udalak Xanistebanetarako argitaratutako "Oiartzungo Hotsak" bideoan, toberak jotzen.

2000.- Udaran Galiziako Lalin herrian, bertako Herri Musika Jaialdian.

2000.- Santo Tomasetan Donostiako Kursaal Aretoan Polentzi Gezalari egindako omenaldian, ote jotzen eta txalaparta jotzen.

2001.- Abenduan Donostiako Kursaal Aretoan "Olentzaro Begi Gorri" jaialdian.

2002-05-11.- Euskal Dantzarien



TXALAPARTA ESKOLA

1999-2000 ikasturtean, Herri Musikaren Txokoak bultzaturik Oiartzungo txalaparta taldearekin batera Txalaparta Eskola martxan jarri genuen.

esperientzia eta maila handia dituen Iñigo Monreal da. Hogei ikasle inguru aritu dira 2002-2003 ikasturtean, hiru maila eta taldetan banaturik, klaseak asteartero eta Udalak utzitako

Biltzarrak "Ialgi hadi dantzara" izenarekin Bergaran antolatutako Erromeri Egunean.

2003.- Sagardo Festa Oartzunen. Ekainean Gay eta lesbianen egunean Donostiako Gasteszenan antolatutako jaialdian. Abenduan Haurtzaro Ikastolako Festan.

Bestalde, talde honek urtero jotzen du Oartzungo plazan antolatzen den Inauterietako larunbateko ekitaldi nagusian eta talde honetako kideek osatu dute azken urteotan Elizako kanpaiak jotzen ari den kanpai jole talde berria.

ALBOKA ESKOLA

2002-2003 ikasturtean Txalaparta Eskolaz gainera Alboka Eskola ere martxan jarri genuen, honela Herri Musikaren Txokoaren erronka den Oartzungo Herri Musika Eskola pixkanaka pixkanaka osatzeko.

Alboka eskola hauek Hernaniko



Alboka Eskolakoa den Haritz Ezeiza albokariak ematen ditu. Ikasleak aldiz, 2002-2003 ikasturtean zazpi izan dira, horietatik lauk 2003-2004 ikasturtean jarraitzen dutelarik beste lau ikasle berriekin osatutako zortziko taldean. Klaseak ostegunero Ergoingo Auzokalte Elkarteko lokalean eta ostiraleroko Alzibarko eskolan ematen dira.

Alboka ikasleen maila hobetzen ari da, lehenengo ikasturteko ikasle batzuk jadanik kalean jotzen hasteko maila dutelarik eta bigarren ikasturteko batzuk 2003an antolatutako Hernani eta Arabako Albokarien topaketetan ere parte hartu dute. Aurtengo helburuetako bat eskolako alboka taldearekin Oartzungo Xanistebanetan kalebuelta egitea da, albokaren hotsa eta musika aditzera emanez.

Beraz, honen bitartez egindakoa garrantzizkoa dela eta merezi izan duela adierazi nahi dugu. Oartzuar gazte askok herri musikan modu sortzaile, entretenigarri eta atseginean parte zuzena hartzen du eta beren trebezia erakusten digute. Bestalde, eskola hauek geroa izan dezaten, herri musika zaleak eskola eta talde hauetan parte hartzera animatu nahi genituzke.



Zuberoko herri musikariak HM Txokoan

2004ko otsailaren 14an Zuberoko Aintzindariak Barkoxeko Herri musika Eskolaren bisita izan genuen gure txokoan. Benetan pozgarria izan zen guretzat gure herri musikaren "aintzindari" diren Mixel Etxekopar eta xirulari nahiz tabalari hauen bisita izatea eta are gehiago beraietzat Herri Musikaren Txokoan egindako bisita atsegina eta interesgarria izan zela jakitean.

udaberriko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 12 euro.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udaberriko kontzertua

2004ko apirilaren 3an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

OS MIÑOTOS

"Os Miñotos" laukotea berez sortu zen, urtetan tradiziozko galiziar musikaren inguruan lanean aritu diren lau musikariren ezagutza eta esperientzien adierazgarri. Herri musikarekiko harreman zuzena alderdi ezberdinetan gauzatu dute: ikerketan, irakaskuntzan, soinu-tresnak eginaz eta kultur elkarte ezberdinetako jardunaz, azkenean Galiziako musika formazio tradizionalenera itzultzeko: gaiteroena.

"Os Miñotos" laukoteak eskeiniko duen kontzertua, Galiziako herri musikaren inguruko zenbait alderdiren adierazpenean oinarrituko da, hala nola jatorri geografikoa, erabili ohi diren soinu-tresnen tonalitatea eta eskualde bakoitzeko berezko erreperitorioa.

Erreperitorio honekin, laukotea saiatuko da ehundaka urtetan Galizako jai eta erromeriak alaitu dituzten gaitero nabarmenenetako batzuren jotzeko estilo eta era ezberdinak biziberritzen.

Eskualde bakoitzeko jatorrizko erreperitorioa interpretatzeko garai batean erabili ohi ziren gaiten tonalitateak erabiliko dituzte horretarako. Galizako herri musikako eritmo ezaugarrienek osatuko dute ibilaldia, eta hauekin, urteen joanean musika horretan txertatu zirenek, talde tradizionalen soinu tankeran erabat bameratuak.

Erreperitorioa:

Alborada Gallega. - Pascual Veiga. Galizako himnoa ere konposatu zuen autore honen obra herrikoienetakoa. Veiga, bere lanetan herri musikaren berezkitasun eta idiosinkrasia ongien jasotzen jakin zuen autore galegoetako bat da.

Jota do Son. - Herrikoia. Jota eritmoa duen doinu hau Lugoko A Fonsagrada bailaran jasotakoa da. Eskualde honek Asturiasekin egiten du muga, eta doinuaren apainduretan antzeman daitezke auzoko lurralde horretako mendebaldean ere ezagutzen diren gai estetikoak.

Farruquiña chaman á porta. - Gaiteros de Soutelo. Soutelo de Montes-eko gaiteroena laukote iraultzailea izan zen



bere garaian, izan ere haiekin hasi baitziren sortzen gaitero laukoteak Galiza guztian barrena, eta XX. mendean han izandako musika talde adierazgarriena izatera iritsi zen; gainera gaita duotan ahots ezberdinak erabiltzen hasi zen lehen taldea izan zen. XX. mendearen hasieran, Argentinara ere joan ziren, hego-ameriketako galiziar koloniatan itzulia egitearren, eta han zenbait disko grabatu zituzten.

A Farruquiña. - Os Campaneiros de Vilagarcía. Polka hau gaurko egunera iritsi bazaigu, kalitatez eta bizitza luzeagatik laukote garrantzitsuenetako bat izan denari zor zaio. Rias Baixas-etako jotzeko estilo bereziaren adibide onenetakoa dira.

Villoria. - Ricardo Courtier. 1900. urtean konposatu zuen muñeira hau Courtier-ek, "Os Trintas de Trives" taldearen sortzaileak. Bere konposaketak pentagraman jarri zituen aurrenekoetako gaitero eskolatua izan zen gizon hau.

Lembrando. - Os Rosales. Galizako herri musikako baltsen artean ederrenetakoa. Ribeirako "Os Rosales" taldearen errepertorioa da. 50 urte baino gehiago daromatze jotzen, eta taldea osatzen duten guztiak familia berekoak dira: Romerotrak.

Loliña. - Herrikoia. Muñeira hau, dantza eritmo honen eredu tradizionalenaren adibide garbia da. Atal bakoitza 16 konpasez osatzen da eta bi gaitak hiruko interbaloko aldeaz egiten dituzte bi ahotsak. Lauko taldearen hots berezkoena da haxe.

San Roque. - Os Montes. Lugoko Os Montes laukotea 60 urte luzetan aritu zen musika jotzen. Pasodoble honekin urtetan eskeini zituzten diana eta alboradak.

Alalá. Gehienez ahots hutsez abestu ohi den neurri libreko kantu zaharra, nahiz eta gaita edo zanfonaz lagundua ere interpretatzen den, edota abestu beharrean soinu-tresna bakarlariaz: gaita oraingo honetan.

Rumba de Vergara. Dantzarako orkestak

agertzearekin, tradiziozko musikariak garaiko modaren arabera moldatu zituzten heuren erreperitorioak. Kanpoko eritmoak nola bertako egin diren adibidea da hau, laukoteek herri musikaren berezkitasuna eman dietelarik.

Chegaches Lola. - Carlos Justo. Gaur eguneko muñeiren adibide, bi gaitak ahots bakarrean hasten dute doinua, bigarren atalean hiruko interbaloko aldeaz bi ahotsetara hasteko, eta 4. nahiz 5. esaldietan erabat berezitutako ahotsetan garatzen da harmonia.

Foliada de Tenorio. Gaiteros de Soutelo de Montes. Musika instrumentalean nahiz abestuan gehien erabilitako doinetakoa da. Galizian hain herrikoia den gaitaz lagundutako kantuaeren adibide.

Pasarrúas de Ambite. - Ambite. Pasarrúas honek biko eritmoak nahasten ditu, aldiari aldiari binakako (pasodoblea) nahiz hirunakako (muñeira) oinarritz. Kalejira moduko honen egileak, A Coruña-ko gaiteroa bera, seme eta ilobei erakutsi zien gaitero ofiziala.

Santardán. - Ivan Costa. Moaña-ko gaitero gazteak, tradiziozko estiloko musika konposatzen ari den belaunaldi berria ordezkatzeko du. Tonalitate ezberdinetako gaitak nahasiz emana, ez da denbora asko honelakoak egiten hasi direla herri musika galegoan.

Taldeko partaideak:

Vitor Otero	(Gaita)
Bruno Villamor	(Gaita)
Xaneco Tubio	(Tamboril, pandeireta)
Marcos Galán	(Bombo, gaita)

BITORIANO LOIOLA IRIONDO "OSPAS" soinujolea eta JOXEMARI ASTIASARAN panderojolea.



Bitoriano Loiola Iriondo "Ospas" soinujolea, Mutrikun, Abeletxe baserrian 1926-04-13an jaioa, 1953. urtez geroztik Mendaroko "Ospas" baserrian bizi da.

Gerra aurretik, Mutrikuko Abeletxe baserrian jaiero erromeria egiten hasi ziren, berak 7 edo 8 urte zituela, eta han ezagutu zuen, bertan jotzen zutenen artean, Ansorregi soinujolea. Aurrerago, 14 urterekin, bere gisa ikasi eta Bitoriano bera

hasi zen soinua jotzen santaesketan. 18 eta 19 urte zituenerako berriz, etxetik ordu eta erdiko bidea eginik, jaiero Larroskainera joaten zen bertako erromerian jotzera.

Ogibidez era profesionalean ibili izan ez bada ere, aritutako plaza guztietan garbi ikusi da "Ospas" maila eta trebetasun handiko trikitilaria dela. Nahiz eta kasetak, irrati eta bestelako grabaketen bitartez gaurko pieza berri asko jotzen ere ikasi duen, gure kontzertuan bereziki garai bateko errepertorioa eskeiniko du, gaur egun horrenbeste entzuten ez diren musikazko perla horiek, besteak beste: sueltoko fandan-

goak eta arin-arinak, trikitixa eta bueltak, martxak, agarrauko pasodoble eta baltsa zaharrak, mexikanak, eta polka edo tango motako dantzak.

Joxemari Astiasaran berriz, Asteasun 1953-11-02an jaioa, gaur egun Amasako "Pamus" baserrian bizi da. Panderoa jotzen bere kasa ikasi eta 14 urtetarako hasia zen, geroztik bereziki anaia Luisekin jo duelarik, Astiasaran Anaiak bikote ospetsua osatuz. Bikote hau Euskal Herriko herri askotan aritu izan da: toki batzuetara urtero jotzen ziren, eta iritsi dira urte berean 93 plaza ezberdinetan jotzera

ere. Baina Joxemari jo du beste trikitilari ospetsu askorekin ere, bere pandero, ahots eta umore paregabeak eskainiz. Horien artean aipa litezke besteak beste Eleuterio Tapia, Joanito Garate "Maltzeta", Zialtzeta, Martin,...

Joxemari panderoa jotzen aparta da, bai joera arruntetan eta hanka-buruko joeretan ere. Baina panderoarekin bakarrik ez, goilareekin botila jotzen ere oso trebea da.

Bitoriano Loiola "Ospas"ekin 1972. urtez geroztik, urtero saio bat edo gehiago egiten elkarrekin arituak dira.

BISITARI KOPURUA

Abendua: bisitari kopurua: 244

Antolatutako taldeak: 12

Urtarrila: bisitari kopurua: 235

Antolatutako taldeak: 13

Otsaila: bisitari kopurua: 441

Antolatutako taldeak: 18

Bisitari kopurua martxora arte:

4.895

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

